



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



## ERDI AROKO HIRIGUNEKO ENPRESEN ZENTROKO 2017KO INGURUMEN-KONPROMISOA

Orain dela bi urte, Erdi Aroko Hiriguneko Enpresen Zentroak Ekoscan® ziurtagiria lortu zuen. Horrek esan nahi du garai honetan, dagokigun ingurumen-legeria betetzeaz gain, haratago goazela, eta pixkanaka ingurumena gure eguneroko bizitzan integratzen ari garela, adibidez:

- Erosteko eta kontratatze prozesuetan: 2017an, erosketa eta kontratazio berderako daukagun gida ezarriz jarraitzen dugu Zentroaren funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren produktuez zein zerbitzuez jabetzeko. Bestalde, gure enpresa hornitzaileei eskatzen diegu beren ingurumen jarduera onen berri emateko.
- Gure kontsumoetan: kontrolpean daukagu ura, energia elektrikoa eta gas naturala, beharrezkoak horiek guztiak Zentroko funtzionamendurako, baina urtez urte murrizten saiatu behar dugu, erakunde iraunkorra izan nahi badugu. Beste kontsumo batek, paperarenak, hain zuzen, behera egin du nabarmen, eta egun Zentroaren ia jarduera osoa euskarri telematikoetan oinarrituta dago.
- Gure hondakinak sortzean eta kudeatzean: bi eremu daukagu (hallean eta atsedeen-gelan). Hor, bertako enpresek zein pertsona erabiltzaileek ondo bereizi ditzakete etxeko hondakinen antzeko hondakinak (ontziak, papera-kartoia, CDak-DVDak, pilak, tinta- zein toner-kartutxoak eta gainontzekoak). Zero hondakin helburua duen estrategia jarraituz, hondakin horiek egoki kudeatzen dira, ahal bada birziklatuko direla ziurtatzeko.
- Gure izateko eran: zentro hau enpresen komunitate bat da, eta hiri ingurunean egon arren, bioaniztasunaren ikuspuntutik baliotsua den ingurune batean integratuta dago. Horregatik, aurtan martxan jarriko ditugu zenbait ekintza Gasteizko Erdi Aroko Hirigunean bizi den faunari laguntzeko.

2017ko ekaina

Stua. Teresa Ugalde  
Enpresen Zerbitzuko burua